

HITZAK BAINO GEHIAGO

HELBURUAK

- "Errefuxiatu" (iheslari) hitzaren alderdi lexiko, semantiko, etimologiko eta sozialak berrikusi.
- Hizkuntzaren erabilera komunikatiboaren eta horren inplikazio pertsonalaren eta sozialaren inguruko hausnarketa egin.
- Adierazpen moduak landu: besteei laguntzeko sostengua adierazten erakutsiko digutenak.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Proiektatzeko aurkezpena: *Errefuxiatu: Hitzak baino gehiago*

LAGUNTZA-MATERIALA

- Jarduera eta baliabideen gida: neska-mutil migratzaile edota errefuxiatuen eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzari buruzkoa. Gida eskuragai dago web-orrialde honetan: unicef.es/educa

Hizkuntzaren erabilerak gure eguneroko bizitzaren errealitatea, mundua ikusteko modua eta besteekin harremanetan jartzeko moduak zehaztu ditzake. Migratzaile eta errefuxiatuei erreferentzia egiten diegunean, norberaren pentsaera zein talde-pentsaerak islatzen ditugu, baita horien inguruko hesiak eraiki eta eraitsi ere. Era berean, garrantzitsua da pertsona bakoitzak bere buruari erreferentzia egiteko duen modua:

Beste herrialde batera joaten banaiz, zertzat daukat nire burua? Migratzailetzat, iheslaritzat, bidaiaritzat...? Horiek dira landu daitezkeen hainbat kontu, "errefuxiatu" (iheslari) hitza, erroa, erabilera eta konnotazioa aztergai dituen hizkuntza-eskolaren bitartez.

Jarduera horrek, hizkuntza-eskola batean proiektatzeko aurkezpen bat du ardatz eta, eskola bukatzeko, harrera-pasaporte bat egin daiteke.

Hizkuntza-eskolan egiteko aurkezpena

Aurkezpenak, hizkuntzaren erabilera eta diapositibekin zerikusia duten aspektu ezberdinak biltzen ditu eta, elkarren osagarri diren arren, independenteak dira edukiaren aldetik. Ikasleen arabera beharrak aintzat hartuta, diapositiba batzuk edo beste batzuk jar ditzakegu, edo bakar bat erabili.

Jarduerari amaiera emateko, haur iheslariak babestuko dituen material komunikatiboa landu dezakegu, 11. diapositibak adierazten duen bezala. Lan horiek, edota lan horien irudiak, ikastetxeko blogean argitaratu daitezke, baita sare sozialetan ere. Gainera, egindako lana www.unicef.es/educa web-orrian argitaratu dezakezue, zuen esperientzia partekatu ahal izateko UNICEFekin lan egiten duten beste ikastetxe batzuekin.

Hona hemen diapositiba bakoitzeko, gida moduan, erabilgarri izan daitezkeen galdera batzuk:



1.GO DIAPOSITIBA

- Hau da Harluxet hiztegiak "errefuxiatu" hitzari buruz ematen duen esanahia.
- Definizio horri zerbait gehituko edo kenduko zenioke? Zerbaitetik atentzioa ematen al duzu?
- 2015. urtean "errefuxiatu" izan zen *Fundéuk* aukeratutako hitza; komunikabideetan asko erabiltzen zelako eta, aldi berean, hitzaren erabilera egokia zalantzarik delako. Zalantzarik al duzu hitz horren erabilerari dagokionez?

2. DIAPOSITIBA

- Zer antzekotasun daukate hitz greko eta latinoak?
- Hitz gehiago ezagutzen al duzu latinetik datozenak, ala grekotik eratorritakoak?
- Zein zen Phyge edo Fuga? Zer esaten digu istorio horrek "iheslari" (errefuxiatu) hitzari buruz?
- Jatorri mitologikoa duten hitz gehiago ezagutzen al duzu?

3. DIAPOSITIBA

- Hemen agertzen da "errefuxiatu" hitza beste hizkuntzetan.
- Zer antzekotasun dute? Nola hasten dira? Nola bukatzen dira?
- Hitz taldeak osatu al daitezke antzekotasuna aintzat hartuta?
- Antzeko hitzak dituzten lekuak, geografikoki gertu al daude?
- Zeintzuk egon daitezke oinarrituta arestian ikusi ditugun latinezko erro eta grekozko erroetan?
- Hizkuntza horietatik, zeintzuk dira iheslariak hitz egiten dituzten hizkuntzak? Eta zeintzuk azkeneko ehun urteotan erabilitakoak?

4. DIAPOSITIBA

- Hitz horiek "errefuxiatu" hitzarekin partekatzen dute erro lexikoa, baina esanahia desberdina dute. Zer esanahi dute?
- Ba al dago hitz guztiek duten elementurik? Ba al dago deien azpian dagoen ideiarik?
- Zein izango litzateke "errefuxiatu" hitzaren antza gehien duen hitza, esanahi denotatiboa kontuan hartuta? Eta antza gutxien duena?
- Zeintzuk daukate konnotazio positiboak, neutroak edo negatiboak? Zer konnotazio duela uste duzu, "errefuxiatu" hitzak?
- Lexikoki antzekoak diren hitzak bururatzen al zaizkizu?

5. DIAPOSITIBA

- Semantikoki zeintzuk dira "errefuxiatu" hitzetik gertuen eta urrutien daudenak?
- Ba al dago horien artean egon beharko ez litzatekeenik? Zergatik?
- Hitz positibo, neutro eta negatibo gisa multzokatu beharko bazenu, nola egingo zenuke?
- Hitz guztiak konektatzen dituen mapa kontzeptual bat egin beharko bazenu, nola egingo zenuke?
- Zerrenda horretan hitz gehiago gehituko al zenituzke? Zeintzuk? Gehitu itzazu zure mapa kontzeptualean.
- "Aditu-ihes" esapideak, gatzelaniaz lotura lexikoa eta semantikoa dauka "iheslari" (errefuxiatu) hitzarekin. Zein adibide ezagutzen dituzu bi kontzeptuak lotzen dituztenak?

6. DIAPOSITIBA

- Ezagutzen al zenuen hitz hori?
- Zein da hitz horien esanahi denotatiboa? Eta konnotatiboa? Hitz horien zein erabilera pragmatiko egiten duzu?
- Hitz horiek esateko moduak nola eragiten du? Eta testuinguruak? Horietako zeintzuk dira iraina beti, eta zeintzuk testuinguruaren arabera? Adibiderik bururatzen al zaizu?
- Ezagutzen al duzu Molotov-en Frijolero abestia? Hizkuntzaren zein erabilera iruditzen zaizu deigarria? Zer antzekotasun eta desberdintasun ikusten dituzu ondorengo abesti honekin? Tam Tam Go-ren Voy cruzando el rio abestia. Ezagutzen al dituzu horiekin lotura duen abestirik?
- Horiekin zerikusia duten zer hitz ezagutzen dituzu? Egokia iruditzen al zaizu horien erabilera?
- "Errefuxiatu" hitzak berak, gutxiespen-zentzua duela uste al duzu? Ezagutzen al duzu Common Sans, tipografia -iturria? Tipografia-iturri horrek, refugee hitzaren orde, human hitza erabiltzen du. Zer iruditzen zaizu?

7. DIAPOSITIBA

- Migratzaileei eta errefuxiatuei buruz era desberdinean hitz egiten al dugu, arlo horietan?
- Zer gauza esaten dira eta zer gauza gordetzen ditugu kasu bakoitzean?
- Zergatik uste duzu diskurtso ezberdinak erabiltzen direla arlo ezberdinetan, migratzaile eta iheslarien inguruan mintzatzeko?
- Positiboa ala negatiboa al da gai baten inguruko diskurtsoa testuinguruaren arabera aldatzea? Zeini egiten dio mesede? Zeini kalte?

8. DIAPOSITIBA

- Nongoak dira pertsona horiek?
- Zeinengan pentsatzen dugu errefuxiatu hitza buruan daukagunean? (emakume, gizon, neska-mutil gazte, ikasleengan...)
- Non uste dugu dagoela errefuxiatu gehien? (Europa, Asia, Afrika, Amerikan...)
- Babesa bilatzea duela gutxiko fenomeno dela uste dugu, ala aspalditik datorrena?

9. DIAPOSITIBA

- Zer ikusi dugu albisteetan?
- Zer dakigu iheslariet buruz, albisteetan ikusitakoa kontuan hartuz gero?
- Komunikabideek diotenaren arabera, errefuxiatu bat deskribatu beharko bagenu, nolako pertsona deskribatuko genuke?

10. DIAPOSITIBA

- Irudi horien atzean erabaki politikoak daudela uste al duzu?
- Erabaki zuzenak ala okerrak direla uste duzu? Nori egiten dio mesede eta nori kalte?
- Zer erabaki hartuko zenituzke gobernuan egongo bazina?
- Zeintzuk dira nazioarteko erabakiak, zeintzuk estatukoak eta zeintzuk tokikoak?
- Gobernuak zein mailatan uste duzu izango zenukeela eragin gehien: nazioartean, estatuan, erkidegoan ala zure herrian? Zer egin zenezake?

11. DIAPOSITIBA

- Zer nahi zenuke adierazi haur migratzaile eta errefuxiatuei buruz?
- Zein formatu erabiliko zenuke hobeto mintzatzeko?
- Nori egongo litzateke zuzenduta?
- Nori helarazi nahi diozu? Besteak informatu, konbentzitu, hezi edo mobilizatu nahi al dituzu?
- Zer baliabide eta trebetasun dituzu? Zer zailtasun aurreikusten dituzu?
- Nola egingo zenuke? Nola zabalduko zenuke?

AZAROAREN 20AN

HAURREN EGUNEKO OSPAKIZUNA



Jarduera horren osagarri gisa, mobilizazio jarduera berezi bat gomendatzen dizuegu: denon artean harrera-pasaporte bat egitea —nortasunerako, herritartasunerako eta babeserako eskubideak sendotuko dituen— babesleku eta harrera bila dauden haurrak, sinbolikoki gonbidatzeko aukera emango diguna.

Pasaporte-eredua deskargatzeko eta jarduerari buruzko informazio gehiagorako, jo esteka honetara: unicef.es/educa

GIZATASUN-PASAPORTEA



unicef

GIZATASUN-PASAPORTEA



unicef



© UNICEF/UNI197544/Ose



Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argtataruta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.